



**ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

**AKTA**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2008ko urtarrilaren 29a, asteartea

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 19:00      **BUKATZEKO ORDUA:** 20:40

**BERTARATUAK:** **Alkatea**

Jon Redondo Lertxundi

**Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Joseba Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez de Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Eugenio Cotado Iturain eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

## **Aztergai zerrenda**

- 1.- Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2007ko azaroaren 27ko eta abenduaren 20ko ohiko bilkuren akten zirriborroak.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udaleko langileen ordainsarien gehikuntza, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren Barne Araudiaren eguneraketa.



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

- 4.- Onartzea, egoki bada, Orioko Alde Zaharrear Oinezkoen Irisgarritasuna Hobetzeko proiektuaren aldaketa.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziko Kale Nagusia 9 eraikinari dagokion fitxa urbanistikoaren zuzenketa.
- 6.- Onartzea, egoki bada, udalen elkartearen osatzea, Gipuzkoa Donostia Kutxa kreditu erakundeko kontseilariak aukeratzeko.
- 7.- Onartzea, egoki bada, EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa, arrantza sektorearen problematika dela eta.
- 8.- Onartzea, egoki bada, EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa, torturaren aurka.
- 9.- Onartzea, egoki bada, EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa, lan prekarietatearen aurka.
- 10.- Onartzea, egoki bada, EAJ udal taldeak aurkeztutako mozioa, Juan M. Atutxa, Kontxi Bilbao eta Gorka Knör-en alde.
- 11.- Eskariak eta galderak.

### **Esan-eginak**

#### **1.- IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2007KO AZAROAREN 27KO ETA ABENDUAREN 20KO OHIKO BILKUREN AKTEN ZIRRIBORROAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

**ONARTZEA** 2007ko azaroaren 27ko eta abenduaren 20ko ohiko bilkuretako aktak.

#### **2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALEKO LANGILEEN ORDAINSARIEN GEHIKUNTZA, 2008KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERAKO ERAGINAREKIN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proposamena honako hau da: 2007ko abenduaren 31n indarrean dauden Udaleko langileen eta udalbatzarkide liberatuen ordainsariak (oinarrizkoak eta osagarriak) % 4,2 igotzea, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak 2008ko urtarrilaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

**ONARTZEA** 2007ko abenduaren 31n indarrean dauden Udaleko langileen eta udalbatzarkide liberatuen ordainsariak (oinarrizkoak eta osagarriak) % 4,2 igotzea, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

### **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN BARNE ARAUDIAREN EGUNERAKETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarrak, Udaleko Bozeramaileen Batzordearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

**MAHAI GAINEAN UZTEA** Udalaren Barne Araudiaren eguneraketa, hurrengo otsaileko udalbatzarrean aztertu eta onartzeko, egoki bada.

### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ALDE ZAHARREAN OINEZKOEN IRISGARritASUNA HOBETZEKO PROIEKTUAREN ALDAKETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Orioko Alde Zaharrea oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko lanak egiteko proiektuaren aldaketa ARK GASTEIZ SL ingeniariak idatzi du, 2008ko urtarrileko dataz, eta proiektuaren kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontua 1.998.200,17 eurokoa da (gastu orokorrak, mozkin industrialak eta BEZa barne).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak, Herri Antolaketa, Obrak eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzaile bateratuak 2008ko urtarrilaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

**1.- ONARTZEA** Orioko Alde Zaharrea oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko lanak egiteko proiektuaren aldaketa, ARK GASTEIZ SL ingeniariak idatzia 2008ko urtarrileko dataz. Proiektuaren kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontua 1.998.200,17 eurokoa da (gastu orokorrak, mozkin industrialak eta BEZa barne).

**2.- ADJUDIKATZEA BEHIN BETIKOZ** Orioko Alde Zaharrea oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko lanen exekuzioaren kontratua honako enpresek osatutako Enpresen Denbora baterako Batasunari: CONSTRUCCIONES DONOSTI, SA eta URBANIZACIONES IRUÑA, SA, hasieran adjudikaziodun zirenak. Lanak ARK GASTEIZ SL ingeniariak 2008ko urtarrilean egindako proiektu teknikoaren arabera egingo dira eta obren adjudikazioaren prezioa 1.998.200,17 eurokoa izango da (gastu orokorrak, mozkin industrialak eta BEZa barne).



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

**3.- ESKATZEA** obren enpresa adjudikaziodunari behin betiko garrantia gisa emandako abala handitzea, obren exekuziorako kontratuan azken kopurua handitu egin delako.

### **5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KASKO HISTORIKOA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIKO KALE NAGUSIA 9 ERAIKINARI DAGOKION FITXA URBANISTIKOAREN ZUZENKETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde Informatzaileak eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkura bateratuan emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**]:

**ONARTZEA** Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziko Kale Nagusia 9 eraikinari dagokion fitxa urbanistikoaren zuzenketa.

### **6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALEN ELKARTEA OSATZEA, GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA KREDITU ERAKUNDEKO KONTSEILARIAK AUKERATZEKO.**

Udalbatzarrak alkatearen proposamenaren berri jakiten du. Udalak aukera dauka Gipuzkoa Donostia Kutxa kreditu erakundeko hauteskundeetan parte hartzeko, Udalen Elkarte baten bidez, eta, horrela, ordezkaritza lortzeko Kutxako gobernu organoetan.

Udalen Elkarte honako udalek osatuko dute: Orio, Ordizia, Urnieta, Zumaia eta Segura.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

**ONARTZEA** alkatearen proposamena Udalen Elkarte osatzeko, Gipuzkoa Donostia Kutxa kreditu erakundeko gobernu organoak osatuko dituzten kontseilari nagusiak aukeratzeko.

Udalen Elkarte honako udalek osatuko dute: Orio, Ordizia, Urnieta, Zumaia eta Segura.



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

### **7.- ONARTZEA EAE-ANV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ARRANTZA SEKTOREAREN PROBLEMATIKA DELA ETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

*Arrantza-tokiak agortu izanak, arrantza-modu suntsitzaileen erabilerak, gure itsasertzeko uren kutsadurak, ontzien eta lizentzien deslekuak eta behin betiko gelditzeak arrantza sektorean eragin duten egoerari aurre egiteko; udal honek honako puntuen aldeko jarrera publikoa hartu dezala eskatzen dugu.*

*1.- Instituzioen artean, mahaia osa dezatela. Bertan parte hartu beharko lukete Eusko Jaurlaritzak eta arazo hau zuzenean pairatzen duten udalek. Honen helburua arrantza sektorearen arazoa behin betiko konpontzea eta gure arrantza politika erabakitzeko ahalmen osoa aldarrikatzea izan beharko litzateke.*

*2.- Deslokalizazioa saihesteko, ontziak sal ez daitezen eta lizentziak kofradia eta OOPPen esku edo esku publikoetan gera ez daitezen; arrantzaontzien defentsan plan eraginkorra osatzea eskatzen dugu.*

*3.- Honako helburuekin txoke plan bat egitea:*

*-Arrantza errolda eta eskubideen kudeaketa publikoa izan dadin.*

*-Arrantza arduratsu eta jasangarria babesteko.*

*-Ikerketa + Garapena + Berrikuntza programa.*

*-Arrantza produktuak merkaturatzeko laguntza programa.*

*-Plangintza estrategikoa negoziatzeko eta adosteko alderdi guztiak batuko dituen sektore arteko mahaia osatu.*

*4.- Erabaki hauek onartzen direnean EAEko Gobernuari, herrialde bakoitzeko kofradia eta federazioei, armadoreen elkarteei, OPPAOri, sektoreko sindikatuei, herrialdeko merkatarien elkarteari, herriko biztanleei eta prentsari, oro har, jakinaraztea eskatzen dugu.*

Segidan, Udalbatzarrak EAJ-PNV eta EA udal talde politikoek EAE-ANVren mozioaren aurrean egindako gogoeten berri jakiten du. Gogoetak mozio alternatibo gisa aurkeztu dituzte eta, hitzez hitz, honela diote:

#### ***LAB sindikatuak Orioko Udalean aurkezturiko mozioaren inguruan erreflexio batzuk***

*LAB en dokumentuaren hasieran arrantzari buruzko diagnosi moduko bat egiten da, horrela arrantza tokien agortzeak, arrantza tresna suntsitzaileen erabilerak,*



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

*kostaldeko uren kutsadurak, ontzien eta lizentzien desleketzeak eta behin betiko gelditzeak aipatzen dira. Badirudi hauek direla orokorrean gaur egun gure arrantza sektoreak jasaten dituen arazo nagusiak.*

*Ez dugu arazo hauek mahai gainean daudenik ukatuko, baina ezin dugu ahaztu Euskadin hainbat arrantza mota ezberdin daudela eta lehen aipaturiko arazo hauek azpisektore bakoitzak era ezberdinean pairatzen dituela. Egokiagoa izango litzateke azpisektore bakoitzaren arazoak kasuan kasu aztertzea eta lekuko erantzunak ematea, kontrakoak nahiko nahasia dagoen arrantza mundu honetan oraindik ere arazo handiagoak sortuko bailituzke. Bai baxurak, bai alturak arazo konkretuak dituzte eta arazo hauentzako erantzunak azpisektore bakoitzera egokitu behar dira.*

*LAB sindikatua urteetan dabil baxura eta altura bereizketa apurtu nahian. Afiliatu gehienak altura munduan dituzte eta flota bakar bat aldarrikatzen dute. Europar batasunean sartu ginenean horrelako status quo batetara heldu ginen, arrain mota batzuk baxurarentzat izango lirateke eta beste batzuk alturarentzat. Sindikatu honek status quo hau gainditu nahi du flota bakar horrek edozein arrain moeta arrantzatzeke eskubidea izan dezan.*

*Bestalde baxuran arrantzale kofradiak ditugu. Erakunde hauek langile eta enpresariak batzen dituzte sindikatu eta enpresarien elkarteak jokoaz kanpo utziz. Hau alturaren kasuan ez da ematen, hortik alturan duten ordezkariak. Kontestu honetan ulertu behar da LAB sindikatuaren mozioa, altura eta baxuraren arteko bereizketa apurtu, kofradiak baztertu eta Jaurlaritzaren aurrean protagonismoa eskuratu. Hau, zer esanik ez, baxuraren mundutik ez da ondo ikusten.*

*Gure arrantzaleak baxurako arrantzaleak dira, ingurumena babesten duten arrantza mota jasangarriak erabiltzen dituzte, tradizionalak deituak. Arrantza mota hauek stock ezberdinen osasuna bermatu dute urteetan eta etorkizunari begira gure baxurako azpisektoreak apustu garbia egin du gerora ere tresna hauek erabiltzen jarraitzeko. Adibide bezala antxoaren arazoa dugu. Arrantzaleak berak izan dira arrain hau agortzera zihoala eta arrantza honen debekua eskatu dutenak, naiz eta agortze horren erruak beste batzuenak izan, gure arrantzaleek beti errespetatu izan baitituzte momentuan zeuzkaten arrantza eskubideak.*

*Gure arrantza azpisektorean arrantza eskubideak edo lizentziak kolektiboak dira eta beraien titularitatea arrantzaleen elkarteetan mantentzeko nahia erakutsi dute enpresen eta ontzien desleketzea eragotzi asmoz.*

*Baxurako kasuan behin betiko gelditzeak arazo baino irtenbide izan dira. Gelditze hauen arrazoia ontzi kopurua eta arrantza eskubideak uztartzea izan da, hau da ontzi kopurua murriztea geneuzkan arrantza eskubideak geratzen ziren ontzientzat nahikoak izan zitezten.*



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

*Gure herriko baxurako arrantzak dituen arazo hauetan erakundeen arteko elkarlana egunero ematen da udal, kofradia eta Jaurlaritzaren artean eta gainera era oso eraginkor batean, horren adibide garbia Udalarrantz Sarea da Eudelen xedean.*

*Hau da jorratu beharreko bidea, azpisektore bakoitzaren arazoak finkatu eta kofradia eta erakundeen arteko elkarlana bultzatu tokian tokiko plangintzak adostuz, beti ere gure arrantza politika erabakitzeke ahalmen osoa aldarrikatuz.*

Karmele Belasko zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak LAB sindikatuaren proposamenez aurkeztu duela mozioa. LABek hainbat neurri eta ekintza proposatzen ditu, arrantza sektorearen arazoa ahal den neurrian gozatzeko, sektore horrek krisi larria bizi baitu eta, beraz, behar-beharrezkoa baita gaia gizarteratzea.

Karmele Belaskok adierazten du, baita ere, EAJ-PNVk eta Eak aurkeztutako mozio alternatiboak harridura sortzen diola, ez delako, berez, mozio alternatibo bat, baizik eta gogoeta sorta bat LABek aurkeztu eta EAE-ANVk babestu duen mozioaren aurrean. Bere ustez, mozio alternatibo horretan ez zaio gaiari heltzen eta ez dira benetako alternatibak proposatzen; egiten duen gauza bakarra orain arte bezala segitzea da, eta LAB sindikatuaren kontra jardutea.

Karmele Belasko zinegotziak, azkenik, adierazten du UDALARRANTZ sarea gehiago kezkatzen dela kirol portuez eta merkataritza portuez arrantza sektorean sortutako arazoez baino.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du ez duela bat egiten, inola ere, Karmele Belaskok adierazitakoarekin, zeren eta, besteak beste, EAJ-PNV eta EA talde politikoek LABek aurkeztutako mozioaren aurrean egindako gogoetak oso landuta baitaude eta arrantza sektorearen arazoen azterketa sakona dute oinarrian, arazo horiei aurre egiteko neurri eta alternatibak proposatuz.

Alkateak adierazten du, baita ere, UDALARRANTZ sarearen eginkizuna dela, besteak beste, arrantza sektorearen arazoez arduratzea eta horregatik dagoela Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren barruan. Kirol portuei buruzko kontuez, berriz, Euskadiko Kirol Portuak-EKP arduratzen da eta hori Eusko Jaurlaritzako Herri Lan eta Garraio Sailaren barruan dago.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

**EZ ONARTZEA** EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa, arrantza sektorearen problematika dela eta.

Bozketaren emaitza ikusita, Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du ez duela ulertzen zer duen txarrik bere talde politikoak babestutako mozioak eta iruditzen zaiola mozioa nork aurkeztu duen baloratu dela eta, horren ondorioz, LAB sindikatuaren kontra jotzen dela.

Bestalde, EAJ-PNV eta EA talde politikoek aurkeztutako mozio alternatiboa bozkatzen da eta udalbatzarrak honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Cotado (EA), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **HIRU ABSTENTZIO**]:

**ONARTZEA** EAJ-PNV eta EA udal talde politikoek aurkeztutako mozio alternatiboa, erabaki honen azalpenean jasota dagoen bezalaxe.

### **8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAE-ANV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, TORTURAREN AURKA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

*Igor Portu Juanenak eta Mattin Sarasolak jasandako Tortura larrien aurrean Espainiar Estatuak euskal herritarren aurka erabiltzen duen Torturarekin amaitzea helburua duen MOZIOA aurkeztzen da,*

*2008ko urtarrilaren 6an, goizeko 10ak aldera, Espainiar Guardia Zibileko GAR delakoak Igor Portu Juanena eta Mattin Sarasola atxilotu zituen Arrasaten. 18 ordu beranduago Igor Portu Donostia Ospitaleko UCIn ingresatu behar izan zuten. Txosten medikoaren arabera saihets bat hautsia du, saihets hautsi horrek ezkerreko birika zulatu dio eta, ondorioz, pleura eta odol isuri larria izan du. Gainera, larruazalaren azpian enfisema handia du -azala puztua-, ornoetatik pelbiseraino. Disnea ere badu Portuk -arnasa hartzeko zailtasuna-, hematoma, higadura eta urradura ugari belaun eta orkatiletan, eta ubeldua eta odol bildua ezkerreko begian. Mattin Sarasola, Guardia Zibilaren esku eta inkomunikaziopean zegoela, torturatzen jarraitzen zutela jakin genuen. Forenseak berak jasotakoaren arabera ubelduak eta makatuak zituen gorputzeko hainbat ataletan, hala nola, eskuineko belarrian, bi besoetan, bizkarraren goialdean, toraxaren eskuinaldean eta ezker alboan.*

*Poliziaren bertsio ezberdinek, Rubalcaba ministroaren egiaztapen lotsagarriak, Zapatero presidenteak Guardia Zibilari agerturiko babes osoak, argi eta garbi agertzen zaigun Tortura kasu larri honen aurrean ez dute inolako*





## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

*sinesgarritasunik. Zoritxarrez luzea da Euskal Herriak jasan behar izan duen Torturaren historia, frankismo ilunetik jarraipen osoa izan duena. 1978tik aurrera 7.000 euskal herritar baino gehiagok salatu dituzte Guardia Zibila, Espainiar Polizia Nazionala edota Ertzaintzaren eskuetan jasandako Torturak. Joxe Arregi, Esteban Murueta Goiena, Mikel Zabalza, Lasa eta Zabala, Gurutze Iantzi, Xabier Kalparsoro,... Torturak erahildako euskal herritarren zerrenda horren lekuko.*

*Espainiar Estatuak etengabe eta sistematikoki erabili izan du eta erabiltzen du Tortura Euskal Herriko eskubideen aldeko borroka eta lan ezberdinetan antolaturiko herritarren aurka. Argia ikusi duten kasuak, proiektio mediatikoa izan dutenak, salbuespenak ditugu. Unai Romano, Egunkariako Atxilotuak,... izeberg handi baten punta txikia besterik ez dira. Milaka tortura kasu dira isiltasunak ezkutatuak.*

*Tortura Estatu batek bere indar eta inpunitate osoz herritar babesgabetuaren aurka ezartzen duen bortizkeria da. Torturaren atzean Estatuko aparatu guztiak daude, polizia indarrak tortura gauzatzen, gobernua agintzen, legislatiboa tortura ahalbidetzen duten legediak onartzen, justizia aparatuak inpunitatea bermatzen. Guardia Zibilak PSOEn gobernua aginduz torturatzen du, espainiar kongresuak onetsitako inkomunikazioa erabiliz, Audientzia Nazionala inpunitatea bermatzen du.*

*Baina bada beste elementu bat Tortura posible egiten duena. Espainiar segurtasun indarren jardura irmoa eskatzen denean, espainiar Justiziaren jardunari babes osoa agertzen zaionean, Torturari bidea irekitzen zaio. Eta Tortura kasuak ezkututzen direnean, torturatuen testigantza eta salaketak isilarazten direnean, Tortura kasu berriak posible egiten dira. Horren arabera neurtzen da alderdi politiko, eragile ezberdin zein komunikabideek Torturaren aurrean duten ardura, baita Torturarekin amaitzeko duten aukera ere.*

*Espainiar Estatuak, PSOEn gobernuak, Euskal Herriaren aurka darabilen estrategian Torturaren erabilera gordintzea eta areagotzea erabaki du, une politiko jakin batetan eta helburu zehatzarekin: Euskal independentismoa bortizki kolpatzea. Atxilotetak, epaiak eta zigorrak, legez kanporatzeak, baita Torturak ere, Independentziari ateak itzeko, konponbidea ukatzeko, Euskal Herriaren eskubideak jazartzeko erabiltzen ditu.*

*Abenduaren 1ean PSOEn Gobernuaren estrategia errepresioari babes osoa agertu zioten hainbat alderdi politikok Madrilgo Kongresuan. Egun batzuk geroago ezagutu genuen Gorka Lupiañez euskal herritarren Tortura testigantza beldurgarria, ezkutatua eta isilarazia izan zen. Urtarrilaren hasieran Igor Portu eta Mattin Sarasola izan dira Tortura latzak jasan dituztenak. Hurrengo? Torturaren sekuentziari amaiera jarri behar zaio, behingoz eta betiko. Euskal Herrian Torturarekin amaitzeko oihua ozen eta argi entzuten dugu, eragile bakoitzari dagokio bere ardurari eutsi eta Torturarekin amaitzeko neurriak hartzea.*



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

*Gauza bakoitzak du bere izena, hau Tortura da. Eta gauzak diren moduan esan behar dira, Tortura sistematikoki eta helburu politikoekin erabiltzen duen Espainiar estatua ez da Zuzenbide Estatu bat, Espainian ez dago demokraziarik, ez dago Euskal Herriarentzako ezta euskal herritarrentzako eskubide aitortzarik. Ez da epelkerietarako garaia. Tortura argi salatu beharrean “zalantzak, zantzuak, kontraesanak,...” aipatzeak ez du baliorik. Zertarako balio du Espainiar Gobernuari edo Justizia aparatuari “kasu hau” argitzea eskatzeak? Espainiar Gobernuak gezurren bitartez estali nahi izan du Tortura kasu hau, agerikoa izanik ere, poliziaren bertsioen aurrean hamaika zantzu eta lekukoen testigantza izan arren. Espainiar Justiziak inpunitatea bermatzeko neurriak besterik ez ditu hartu, Audientzia Nazionala atxilotuen inkomunikazioa espetxean luzatuz argi agertu duenez.*

*Torturarekin amaitzeko badira gaur bertan hartu daitezkeen benetako neurriak, Espainiar Estatuari, PSOEren gobernuari, euskal herritarren aurka Tortura erabiltzea zailduko diotenak. Tortura salatu eta babesgabetu behar da, torturatzen dutenak argiki salatu behar ditugu, tortura posible egiten duen isiltasuna behingoz apurtu behar da. Baina Torturarekin betiko amaitzeko behar den neurria bestelakoa da, Euskal Herriak bere eskubideak errespetatuak izan behar ditu, Euskal Herriak marko demokratiko bat behar du, euskal herritar bat espainiar zein frantziar polizi indarren eskuetan torturatua izatea ezinezko egingo duen marko demokratiko bat.*

*Hau guztia dela eta honako mozioa aurkezten dugu udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan:*

- 1. Udal honek irmoki salatzen ditu Igor Portuk eta Mattin Sarasolak Guardia Zibilaren esku jasan dituzten Tortura latzak, baita azken urte luzeetan pilatu diren milaka tortura kasuak ere.*
- 2. Udal honek argi agertu eta salatu nahi ditu Tortura kasu honen atzean dauden ardura guztiak: tortura erabiltzen duten espainiar polizi indarrak, torturak agindu edota baimentzen duen espainiar Gobernuak, inpunitate osoa eskaintzen dion Justizia aparatua, baita Tortura kasu hau isilarazten edo justifikatzen saiatu diren alderdi politiko zein komunikabideak ere.*
- 3. Udal honek, euskal herritarrek espainiar polizi indarren eskuetan jasaten duten Torturarekin amaitu asmoz honakoa nabarmendu nahi du: euskal herritarrek torturatzen dituzten espainiar polizia indarrek zein inpunitatea bermatzen duen espainiar Justizia aparatua ez dute Euskal Herrian inolako zilegitasunik. Hortaz, hauei babesak agertzea Tortura ahalbidetzea besterik ekartzen ez duenez, eragile politiko, sozial zein sindikalei babesik ez ematea eskatzen diegu eta behingoz Torturarekin amaitzeko jarrera argia eta beharrezko neurriak har ditzatela.*
- 4. Udal honek bereziki salatu nahi du PSOE alderdiak osatzen duen espainiar Gobernuak Tortura kasu honi dagokionean agertu duen jarrera, Rubalcaba*



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

*Barne Ministroa zein Zapatero Presidentea gezurretan aritu dira Tortura hauek estali nahian, Guardia Zibilari erabateko babesagertu eta inpunitatea bermatua izango dela agindu dute.*

*5. Udal honek bat egiten du euskal herritarren gehiengo zabalak eskatzen duenarekin: euskal herritarroei aplikatzen zaigun Salbuespen legediaren amaiera, inkomunikazioaren amaiera, Audientzia Nazionalaren desagertzea. Bide beretik, udal honek bat egiten du Torturaren Aurkako Taldeak aurkeztu eta Torturarekin amaitzea helburu duen 9 puntuko zerrendarekin.*

*6. Azkenik, udal honek, Tortura helburu politikoarekin erabiltzen dela salatzen nahi du, euskal independentismoaren aurka eta Euskal Herriko eskubideen ukazioa iraunkortu asmoz. Hortaz, udal honek, Torturarekin, eta euskal herritarren eskubide urraketa guztiarekin behingoz eta betirako amaitzeko marko demokratiko bat behar dela aldarrikatzen du. Euskal Herriaren eskubideak aitortu eta euskal herritar guztiok gure etorkizuna libreki eta aukera politiko guztien artean erabakitzea bermatua izango dugun marko demokratikoa, hain zuzen ere.*

*7. Onartutakoa herritarrei zein komunikabideei helaraziko zaie.*

Segidan, Udalbatzarrak EAJ-PNV eta EA udal talde politikoek aurkeztutako mozio alternatiboaren berri jakiten du. Mozio alternatiboak, hitzez hitz, honela dio:

### ***Igor Portuk atxilotetan zehar jasandako lesioei buruzko mozio alternatiboa***

*Justifikazioa:*

*Urtarrilaren 5ean, Igor Portu ustezko etakidea atxilotu zuten, eta, ondoren, Donostia Ospitalera eraman behar izan zuten, medikuaren txostenaren arabera zeukan lesio larrien ondorioz. Hori guztiori dela eta, tratu txarrak edo torturak jasan dituen susmo larriak sortu dira. Izan ere, alderdiek, instituzioek eta giza eskubideen defentsarako nazioarteko erakundeek, Nazioarteko Amnistiak, esate baterako, zer gertatu zen argitzeko eskatu dute.*

*Gertatutakoa argitu beharrean, Barne Ministroak emandako azalpenek susmoak areagotu dituzte, hasiera batean barruko ikerketa zorrotzik egin gabe eta ikerketa judiziala abian dagoenean ukatu dituelako susmo horiek eta ez duelako Parlamentuan agertu nahi izan azalpen zehatzagoak eman ahal izateko. Horrela ez dago Torturaren eta Beste Tratu Krudel, Jasanezin edo Iraingarri Batzuen aurkako Konbentzioko 12. eta 13. artikuluetan xedatutako betetzerik. Horren arabera, estatu partaideek torturaren eta tratu txarren inguruko salaketa guztiei buruzko ikerketa azkarrak bezain inpartzialak egin behar dituzte. Bestetik, ministroaren bertsio ofiziala egia dela onartuta ere, segurtasun-indarrek lesio larriak zituen pertsona bat eduki zuten euren zaintzapean 15 orduz, ospitale batera eraman gabe. Egitate hori, hain zuzen ere, tratu txarra izango litzateke berez.*



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

*Nazio Batuen Erakundeko Giza eskubideetarako Errelatoreak, Europako Kontseiluko Giza eskubideetarako Komisarioak edota Amnistia Internacionalen txostenetan behin eta berriz egin dituzten gomendioak beteko balira, hots, giza honetako protokoloak indarrean izango balira, susmorako tarterik ez litzateke izango.*

*Donostiako Instrukzioko 1. Epaitegiak alde zuzeneko eginbideak ireki dituenek, gertatutako argitu beharko luke, baina horretarako, Fiskaltzaren eta poliziako agintarien laguntza izan beharko du, aurreko kasuetan bezala euren jarrera oztopoak jartzea eta estaltzea izan ez dadin. Kasuotan, hain zuzen ere, torturatzeagatik zigortutako segurtasun-indarretako kideak indultatu dituzte.*

*Egitate horiek salatu eta argitu egin behar diren arren, ez dituzte ETaren ekintzak inolaz ere justifikatuko eta ez dira inondik inora erabiliko atxilotuak gogoratzeko, giza eskubideen aurkako ekintza larriak egin dituztela egotzi diete eta. Egitate horiek argituz gero, instituzio demokratikoen sinesgarritasuna eta ETaren aurkako borrokaren inguruko sinesgarritasuna sendotuko lirateke. Izan ere, eraginkorra, egokia eta legezkoa izateko, zuzenbide-estatuaren arauak zehatz-mehatz bete behar ditu, inolako esparru grisik utzi gabe. ETaren indarkeriari ez zaio aurre egiten presoekin urrutzearekin, ezta nazioarteko erakunde jakoen txostenetan azaltzen dituzten tortura eta tratu txarren praktikei buruzko salaketan aurrean entzungor eginda. Indarkeria ez da borrokatzen ere ez Alderdien Legearekin, are eta gutxiago ideiak legez kanpo jarritik.*

*Halaber, ez dago inolaz ere onartzerik egitate horiek gaitzestea eta, aldi berean, ETaren erailketagatiko zein estortsioagatiko zigorrak antzuek direla eta ezertarako balio ez dutela esatea, moral bikoitzaren adierazgarri delako. Gauzak horrela, uste dugu orain inoz baina beharrezkoagoa dela ekimen politikoa eta herritarren eta gizartearen parte hartzea indarkeria zokoratzeko, arazo politikoei aurre egin eta konponbidea eraikitzeke. Gizarte honen etorkizuna eraikitzea herritarrei dagokigu eta guztion artean erdietsi behar ditugu adostasunak eta konponbideak, inoren zain egon gabe.*

*Esandako guztia kontuan hartuta, ondorengo proposatzen da Udalbatzarrari:*

*Lehenengoa: Orioko Udalbatzak tratu txarrak eta torturak gaitzesten ditu, giza eskubideak larriki urratzen dituztelako. Hori dela eta, Igor Portuk atxilotetan zehar jasandako lesioak zorrotasunez eta inpartzialtasunez ikertzeko eta Fiskaltzak zein poliziako agintariak ikerketa horretan laguntzeko eskatzen du.*

*Bigarrena: Orioko Udalbatzak poliziako agintari guztiei eskatzen die tratu txarren zein torturen prebentziorako neurriak hartzeko. Horra hor suposamendu horiek independentziaz eta inpartzialtasunez ikertzeko mekanismoen sorrera eta zirkuitu itxiko bideokameren instalazioa komisarioetako eremu guztietan.*



## ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV) eta Iturain (EB-B/Aralar), guztira **LAU ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

**EZ ONARTZEA** EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa, torturaren aurka.

Bestalde, EAJ-PNV eta EA talde politikoek aurkeztutako mozio alternatiboa bozkatzeko da eta udalbatzarrak honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Cotado (EA), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **HIRU ABSTENTZIO**]:

**ONARTZEA** EAJ-PNV eta EA udal talde politikoek aurkeztutako mozio alternatiboa, erabaki honen azalpenean jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoa azaltzeko, Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du hirugarren paragrafoa erantsiko liokeela EAJ-PNVk eta EAK aurkeztutako mozio alternatiboari, hitzez hitz honela liokeena: *Sartu mozioa koktelera batean eta zerbitzatu hotz-hotza*. Adierazten du, baita ere:

- EAJ/PNV eta EA udal talde politikoek ez dutela torturaren praktika uste sendoarekin gaitzetsi.
- Inkomunikazioak izugarri errazten duela tortura gertatzea eta horretaz ez dela mozio alternatiboan ezer esaten.
- Tortura ez dela, bakarrik, fisikoa edo psikikoa; Auzitegi Nazionala izatea bera ere tortura mota bat dela.
- Sakabanaketa ere tortura mota bat dela eta hori, bere garaian, PSOEek eta EAJk egindako elkarlanaren emaitza dela.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du ez datorrela bat, inolaz ere, Joseba Goiburuk esandakoekin eta galdetzen dio ea bola magiko bat daukan, ziurtasun osoz adierazten diona torturaren gaitzespena uste sendoarekin egin den ala ez. Bestalde, esaten dio Joseba Goibururi ez duela arretaz irakurri EAJ-PNVk eta EAK aurkeztutako mozio alternatiboa edo, irakurri badu, ez duela behar bezala ulertu, zeren eta bertan Udalbatzarrari proposatzen baitzaio, argi eta garbi, ondoko bi erabaki hauek hartzea:

1.- Orioko Udalbatzak tratu txarrak eta torturak gaitzesten ditu, giza eskubideak larriki urratzen dituztelako. Hori dela eta, Igor Portuk atxiloketan zehar jasandako



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

lesioak zorroztasunez eta inpartzialtasunez ikertzeko eta Fiskaltzak zein poliziako agintariek ikerketa horretan laguntzeko eskatzen du.

2.- Orioko Udalbatzak poliziako agintari guztiei eskatzen die tratatu txarren zein torturen prebentziorako neurriak hartzeko. Horra hor suposamendu horiek independentziaz eta inpartzialtasunez ikertzeko mekanismoen sorrera eta zirkuitu itxiko bideokameren instalazioa komisarietako eremu guztietan.

### **9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAE-ANV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, LAN PREKARIETATEAREN AURKA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

#### ***Lan baldintzek hil egiten gaituzte. Prekarietateari STOP***

*Hil honetan, lan-istripuaren ondorioz, hilik suertatu da Iñaki Iturralde oriotarra eta garraio sektorearen langile autonomia.*

*Pasa den urtean, Euskal Herrian, lan-istripuen ondorioz, 117 langile hil eta milaka zauritu ziren. Aurten, dagoeneko 5 dira lan-istripuengatik hildakoak. Datu hauek izugarrikoak dira. Azken finean, langile hauek euren eta euren familien bizibidea ateratzen galdu dute bizitza. Gure gizarte garatu honetan, ditugun aurrerapen teknologiko guztiekin, datu hauek onartezinak dira. Horregatik, arazo sozial handi baten aurrean aurkitzen gara.*

*Lan egiten dugunon segurtasuna minimoki ezin badugu bermatu zerbait larria gertatzen ari da gure gizartean. Eta ezinbestekoa da arazo sozial honen oinarrietara jotzea. Azken urte hauetan lan antolaketan eredu berriak martxan jartzen ari dira. Besteak beste, malgutasun handiagoa eta lan erritmo intentsiboagoak. Hauek langilearen nekea handitu eta arreta galtzera eramaten dute, lan-istripua edukitzeko arriskua igoz. Hau da, langilearen esplotazioa handitzen den heinean, lan-istripuaren probabilitatea biderkatu egiten da.*

*Hain zuzen ere, garraioaren sektorean prekaritateak zigorrik gabe jarduten du. Lan erritmo altuak, entregak egiteko epe laburrak, 12 ordu baino gehiagoko lanegunak, astean 65 ordu baino gehiagoko lanaldiak, merkantziaren garrantzia lanaren kontrola galtzearen gaineratik. Panorama guzti honek, neke kronikoa dauka emaitza eta atsedeen faltaren ondorioz langilearen gorputza suntsitu egiten da. Honek desgaste eta sasoiurreko zahartzea dakar eta honek era berean apneak edo lo egiteko arazoak, hipertentsioa, lesio osteomuskularrak, kontzentrazioarako arazoak, etab. Eta hau guztia trafiko istripuak izateko arrisku gehiago ekartzen du.*



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

*Beste alde batetik, azken lan erreformek langabezia jaistea lortu badute ere, hau langileen eskubideen kontura izan da, lan merkatuaren prekarizazioa, behin-behineko eta zabor kontratuekin garatuz. Egoera honen ondorioz, langilearen mugikortasuna lanpostu batetik bestera handitu egin da. Gainera, iraupen laburreko kontratuek ez dute aukerarik ematen lanpostua ezagutzeko. Laburbilduz, behin-behinekotasunak lan-istripu gehiago ekartzen du.*

*Beraz, lan-istripuen atzetik bi arrazoi nagusi daude. Alde batetik, enpresariak etekina ateratzeko grina beste edozein helburuen gainetik jartzen dutelako. Sarritan aipatzen da segurtasunean gastatzen dena ez dela kostua inbertsioa baizik. Zoritxarrez, gauzak ez dira horrela izaten, batez ere, enpresari asko epe motzeko etekin ekonomikoari begira daudelako. Eta asmo onak albo batetara gelditzen dira, tartean lan osasuna, ahalik eta etekin borobilenak lortzeko.*

*Eta bestetik, Euskal Herrian dugun arazoa gure Lan Harremanetarako Esparru propioa eraikitzeko, bi Estatuen inposaketari aurre egiteko. Hau, ezinbestekoa dugu gure lan harremanak antolatzeko, lan erreformei aurre egiteko eta bide batez lan-istripuak gutxitzeko.*

*Hau horrela izanik, Udal Osoko Bilkura honek ondorengo erabakiak hartzen ditu:*

- 1.- Lan-istripuaren ondorioz hilik suertatu den Iñaki Iturraldearen familiari eta lagunei elkartasuna adieraztea eta laguntza ematea, ekonomikoa barne.*
- 2.- Udal honek gertatutakoa argitzeko eta etorkizunean horrelakoa berriro ez gertatzeko behar diren bitartekoak jarriko ditu.*
- 3.- Udal honek, beste erakundeekin batera, gaur egun dauden lan-politika neurriak eta langileen segurtasuna eta lan-baldintzen hobekuntza bermatzea hartuko du konpromisoa.*
- 4.- Udal honek, istripua salatzeako antolatu diren mobilizazioekin bat egiten du.*
- 5.- Erabaki hauek guztiak bando eta ohizko hedabideen bidez herritar guztiei ezagutzera emango zaie.*

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak (EAJ/PNV) mozioaren kontrako botoa emango duela, ez zaiolako batere egokia iruditzen Orioko bizilagun baten istripuzko heriotza politikoki erabiltzea. Hala ere, adierazten du hildakoaren familia udaletxeko atea irekita dituela, edozein motatako laguntza eskatzeko.

Karmele Belaskok hartzen du hitza eta, alkateari erantzunez, adierazten du bere talde politikoak ez duela erabili politikoki herriko bizilagun baten heriotza, baizik eta mahai gainean jarri nahi izan duela lan istripuz izandako beste heriotza bat eta gogorarazi nahi duela urtea hasi zenetik sei hildako izan direla lan istriputan Euskal



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Herrian. Beraz, Karmele Belaskok dio alkatearen adierazpenak 'arinak, ilunak eta hipokritak' izan direla.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ ETA ALKATEAREN KALITATEZKO BOTOAREKIN** [aldeko botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Cotado (EA), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

**EZ ONARTZEA** EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa, lan prekarietatearen aurka.

### **10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, JUAN M. ATUTXA, KONTXI BILBAO ETA GORKA KNÖR-EN ALDE.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

***Juan Maria Atutxa, Kontxi Bilbao eta Gorka Knörr-i babesa emateko mozioa.***

*Justifikazioa:*

*Espainiar Estatuko Auzitegi Gorenak Manos Limpias Funtzionarioen Sindikatuak aurkeztutako errekurtsua onartu du Juan Maria Atutxa, Eusko Legebiltzarreko presidente ohia, Gorka Knörr eta Kontxi Bilbao Ganbarako mahaiako kide zirenak errugabetzat jo zituen sententziaren kontra, Sozialista Abertzaleak, Batasuna legez kanpo utzi ostean ezker abertzaleak Legebiltzarrean zuen taldeak hartutako izena, desegiteari uko egiteagatik. Honela Auzitegi Gorenak bi urterako kargugabetu ditu Ganbarako hiru kide ohiak eta lehenengo urtean zehar isuna bat ordainaraziko die.*

*Nahiz eta aurkeztutako kontsiderazio tekniko-juridikoek bat egin, horietako askok fiskalak berak azalduta, nahiz eta Euskal Herriko Epaitegi Gorenak errugabetzat jo zituen eta nahiz eta Botin Kasua bezala ezagutu den auzia, auzipetze bat mantentzeko interesatutako salaketei balio erlatiboari buruz, aurrekaritzat izan, dirudienez doktrinak suposamendu batzuetarako balioa du baina ez beste batzuentzat.*

*Duela bost urte, Jose Maria Aznaren Gobernuak, bere tresneri mediatikoarekin batera, Eusko Legebiltzarreko mahaiaren kontrako jazarpen judizialari ekin zion. Hasiera batean, Euskal Herriko Epaitegi Gorenak akusatuek Sozialista Abertzaleak osatzen zuten hautesien taldea desegiteko formula ezin izan zutela aurkitu uste izan zuen. Baina gauzak ez ziren bertan gelditu, izan ere Manos Limpias Funtzionarioen Sindikatua bezala ezagutzen den erakundeak, nahiz eta*





## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

*horrelako izen bat eduki ez du inongo lantokian ordezkariarik eta bere arduradun nagusia Fierza Nueva ultra eskuindar alderdiaren gidari ohi Miguel Bernard da, Auzitegi Gorenean errekurtsio bat jarri zuen, azken honek Euskal Herriko Epaitegi Gorenak esandakoari entzungor eginez, Juan Maria Atutxa, orduko Eusko Legebiltzarreko presidentea, eta Kontxi Bilbao eta Gorka Knörr, Ganbarako mahaiaren kideak, kondenatu eta kargugabetzeko. Horrela Auzitegi Gorenak Ganbarako hiru kide ohien kontrako bi urteko kargugabetzea eta lehenengo urtean isun bat ordaintzeko obligazioa ezarri ditu.*

*Epaitegi Konstituzionalaren aurrean babesa eskatzeko aukerak sententzia honek duen karga politikoa ez du indargabetzen eta ustezko delitua zen ala ez edo botereen arteko kolisio batean sartzen zen ala ez hipotesien inguruan sortu den eztabaida Botere Judizialaren barruan dagoen politizazio kutsuagatik erabat gaindituta geratu da. Politizazio honek urduritasuna sortzen du ultra eskuindar talde batek magistratura gorenak hartu beharreko erabakietan nolako eragina izan dezakeen ikusterakoan. Lehendakariagatik ere susmoak hartzen ahalegintzen den magistratura bera da.*

*Esandako guztia kontutan hartuta, udalbatzarrak ondorengo erabakia hartzea proposatzen da:*

*Lehenengoa: Orioko Udalbatzak Juan Maria Atutxa, Kontxi Bilbao eta Gorka Knörr-i, Eusko Legebiltzarren autonomia defenditzeagatik, bi urteko kargugabetze eta lehenengo urtean zehar isun bat ordainaraztea zigortuak izan direnei, bere solidaritatea erakusten die..*

*Bigarregoa: Orioko Udalbatzak bere salaketarik irmoena egiten du Espainiar Estatuko Botere Judizialearen politizazioaren inguruan, sententzia honek bakea eta normalizazio politikoaren bidean harriak jartzen baino ez baitu egiten.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

**ONARTZEA** EAJ-PNV udal talde politikoak aurkeztutako mozioa, erabaki honen azalpenean jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoa azaltzeko, Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du seguru dagoela Auzitegi Konstituzionalak gauzak bere lekura itzuliko dituela eta erakundeek presiorik gabe hartu behar dituztela erabakiak.



**ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

## **11.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoa minduta dagoela alkatearen jarrerarekin, zeren eta jakin baitute joan den abenduaren 26an Aldun Nagusia herrian izan zela eta bere talde politikoari ez zitzaion bisita horren berririk eman, nahiz eta, gero argitaratu zenez, bisita Udaleko gaiak aztertzeko izan. Adierazten du Aldun Nagusia Orioko EAJko zinegotzietz lagunduta egin zuela bisita eta, beraz, alderdi mailako bisita izan zela pentsa zitekeela; baina, gero, ez zutela inolako erreparorik izan herriko jatetxe batean bazkaltzeko, herriaren kontura.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Aldun Nagusiaren bisita ez zela, berez, bisita instituzionala izan, zeren eta, aurrena, Gipuzkoako Foru Aldundian batzartzeko hitzordua eskatu baitzion alkateak; baina Aldun Nagusia bera izan zela adierazi ziona ez zela beharrezkoa Donostian batzartzea eta, Gabonak zirela-eta, bera etorriko zela Oriora.

Azkenik, alkateak adierazten du kontuan hartuko dituela Joseba Goiburuk esandakoak eta, aurrerantzean, Aldun Nagusia herrira etortzen denean bisita instituzionalean, udal talde politiko guztiak gonbidatuko dituela.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA,**